

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Zerbitzuak eskaintzeagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen zerga-ordenantzaren aldaketa behin-behinean onestea (4. eranskina, "Zabor-bilketa")

Udalaren Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 28an egindako ohiko bilkuran, zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzea erabaki zuen (4. eranskina, "Zabor-bilketa"), tarifak ehuneko 50 igotzeko, ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean ezarritakoa betetzeko, hondakinen kudeaketaren kostua estaltzeari dagokionez.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 65.2. artikuluetan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa betetz, jendaurrean jartzen da espedientea, hogoita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe hori igaro eta alegaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

Durana, 2024ko urriaren 29a

Alkatea

M^a BLANCA ANTEPARA URIBE